



[10]

1971- Abendua (16)






EUSKALTZABAI  
AZKUE BIBLIOTEA

Eguberri bezpera da  
Olentzaror eguna.

Egun berrien hastapenak direlako,  
"Eguberri" ziren egun hoik gure  
arbasoentzat, gure aintzinako eus  
kaldun asaba zaharrentzat. Eta  
gainera, Jesus Salbatzailea haur  
jaio delako dira "Eguberri" kris  
tau fededunentzat.

Dena delarik ere, gi  
zajantzian idurikatzen da Olentza  
ro. Ximinitik sartzen omen da esa  
ten du mendez mende gureganaino  
heldu den ipuinak. Begi gorriak o  
men ditu eta aurpegi beltza. Ikaz  
kina dela, diote nonbait, eta seku  
lako triponztzia dela beste nonbait.

Olentzaro egunez, las  
toz edo oihal-pusketaz eginiko gi  
za-iduri bat hartu lau lagun  
arte, (Olentzaro giza-iduriz itxu  
naturik), eta eskean ibili ohi di  
ra multzoka, nola haurrak hala gaz  
teak eta helduak euskal-herrietan.



# 2 MAINTZIN~SOLA SABA

Sakonketa edo teoria aldetik hornituago zeto-  
rrela aspaldi honetan gure aldizkaria, esaten genu-  
en johan den zenbakian. Eta halaxe da izan ere.

Bestalde, dei bat egiten genien irakasleei: e-  
rantzun dezatela esperientziak emanaz, baldin-eta  
ikastolen espresio bide izan behar badu; eman deza  
la, alegia, bakoitzak zernahi esperientzia eta bere  
zailtasunen berri.



Deiak, ondorioz, ukan du oihartzuna, eta Oinati  
aldetik erantzun daukute bereziki  
oraingoan. Lehendanik ere ezagun  
genituen adiskide oinatarrok, eta  
jarrai dezatela, esaten diegu, uste  
osoz. Baina ez da aski han-hemenka  
erantzun apurrak sortzea. Hasteko  
ez da gaizki. Beti hasten ibiltzea, ordea, gauza xu-  
hur eta urria da. Ezin ihardungo dugu aldizkaria  
hala-hola eta azken orduan moldatzen.

Ugariago, aberatsago behar du erantzuna. Harpi-  
detzarena lehenik; eta irakurtzearena, maiseatzeare-  
na edo idaztearena, gero.

Halere, ez dugu atzeraka edo gibelerat gohaze-  
nik esango: marrazkiak eta artikuloak ere ugaltzen  
ari zaizkigu. Honek, lankideak ere ugaltzen ari di-  
rela esan nahi du. Hori da benetako bidea.

# IRAKASKINTZA eta PEDAGOGIA

Irakaskintza eraketari kritika kanitz egiten zaiola gauza jakina da. Pedagogiko mugimendu oro, guti edo gehiago, kritika honi lotua dago. Egungo kritika berezia da ordea, ez baita pedagogiko mailan geratzen. Heziketan agertzen diren hutsuneak zentzu politiko bat dutela uste du. Irakaskintza - ren kritika ez dela ekonomia kritikatik, ez burokratiatik, ez-eta gizarte eraketatik berez ahal. Bestela esan: heziketa alorrean nabari diren makurrak, politika nahiz ekonomia mailan egindako aukera berezien ondorio direla, dio egungo kritikak.

Beraz, heziketa, politikatik, hots, hiri bizitzatik, beronen ekonomiko eta giza-alderdietatik berez ezina dela, azaltzen saiatzen da. Iritzi honetako ez direnak, hau da, irakaskintza aparteko sailtzat dadukatenak honela mintzo ohi zaizkigu: ikaslearen pentsamolde eta iritziak, eskolak ez ditu makurtu behar ez alderdi batetara ez bestetara ere. Hau, egia esan, tesia ofiziala ere badugu.

\*\*\*\*\*

Eskolaren helburu bakarra, askatasunaren esnatzea, adimenaren gaitzea jotzen da. Ikasleak osotasunera hel daitezten, eskolak ateak zabaldu behar dizkie. Denei egokiera berdina eskainiaz. Honela kontzientzia kondizionamendu guztietatik aske dela eta zentzu kritikoaz hornituz gero, aukera bat nahiz bestea egiteko prestatuko litzake. Alderdikeriarik gabe aurkeztuko zaizkion zenbait posibilitateen arteko aukera, alegia.




Gehienek arazo korapilotsuak isildu beharreko jotzen dituzte. Eskolan, eskola lanak, inbestigazioa eta kultura direla landu behar esatea, batzuek biziki maite dute. Egungo gizartean ez da deusegina eta iraunkor, arian egiten dena eta aldakor

baizik. Beraz, jakintza hau guztiak jaso ahal izateko gaitu behar da ikaslea, tai gabe, aldatuz dohan mundu bati dagokion jakintza gero eta zabalago delako. Hau pedagogikoki neutral jokatzeari izanen litzake. Hau errealitatearen ikuspegi irekia ematea. Halere bide hau hartzen den bakoitzean, ikaslea bide bat nahiz bestea aukeratzeko prestatzen denik ez batere segur, nere ustez.

#####

Heziketa oro politika aukera bati lotua dagoela, uka ezina da: hontarako ematen den dirutza eta diru honen banaketa dela. Aukeratzen diren ikasleak eta hontarako erabiltzen diren bideak direla, alde batetik. Bete beharreko programak eta erabil daitezken metodoak. Ikasleei proposatuko zaien heziketaren mamia eta baloreak bestetik.

Hau guztia politiko ikuspegiaren arabera ematen da. Agintaritzak bere esku duen politiko eraketak zer duen gazteriatik itxaron, huraxe dio heziketari helburutzat jarriko. Zeren heziketaren bidez egungo belaunaldiak biharkoa du prestatzen. Hain zuzen ere honegatik. Politiko eraketa ezberdinetan heziketa ezberdina gertatzen da.



Gizarte estrukturazio honetan heziketak zein eginkizun betetzen duen eta zein alderdiari dion eusten da lehenik aztertu behar dena. Klase nagusiak heziketari ezartzen dion helburu zehatza, bere sostengu diren eraketa hauen zaintzea eta aldezteada. Bide batez, eraketa hauek onartuko dituen giza-mota moldatzen saiatzen dela. Egungo estrukturazio hau gizarte honen martxarako beharrezkotzat agertuko du. Horregatik eskola berez kontserbadore eta gizona gizarte giroan integratzeko prestatzaile da.

Hemen neutral jokatzeari egungo eraketari eustea bada, gutienez neutralitate honen aitzekiaz egiten den lana salatu egin behar da. Politikaririk markurrena, politikari uko egiten dionarena izan daiteke.

1) ESKOLAK aukera bat eginaz, ikasleen artean banaketa bat sortzen du.

Gure irakaskintza eraketa oraindik ere, hein batetan, Aristoteles garaian sorturiko eraketaren jarraitzaile dugu. Bi eratako kultura ematen zen sasoin hartan: lehen kulturak, lanerako bati tipat, jendea prestatzen zuela. Neketsu eta nortasunaren osagarri gertatzen ez ziren lanetarako. Bigarrenak, hots, lujo kulturak, jakintzarako ateak zabaltzen zituen. Agintaritzarako zuen soilki jendea prestatzen. Gizonak manaiatzeko aginduak irakasten zituen, lana aldiz gutietsi egiten zuen. Honen antzera, gure egunetako gizartearen eraketak, heziketa tekniko eta kultura liberalaren arteko berezkuntza kausatu du.

\*\*\*\*\*

Nolanahi dela ere, irakaskintza eraketa ikasleen arteko zatiketa egitera jarria dago. Haste-hastetik, nor gora jotzeko gai den eta nor behe mailako irakaskintzan geratu beharko den seinalatu egiten du. Maiz aski entzuten dugunez, denei ematen zaie ikasketak egin ahal izateko egokiera. Batzuk gai ez izan ordea eta beste bide bat hartu behar. Ikastaroa hasi bezain laster, zenbait irakaslek, urlia ikasteko gai dela esanen dauku. Sandia berriz, gai ez izanik, luzaroan eskolan edukitzea, denbora alferrik galtzea litzake. Azken era honetara epaitua izan den, eskoletan luzeago edo laburrago egonen da, baina etsita eta denbora pasa. Gurasoak noiz aspertuko zain bera aspaldian aspertua delako.



as  
kok e-  
ta askok ez  
kasteko ez ba-  
lio izatea ez bide  
zaio irakaskintza era-  
ketari bota behar, ikasle as  
ko eta askori baizik. Bidezko da



bada eskolak egiten duena. Merezi duena gora johanen bait da eta eskolak ipini dion markaz, gizartea ren azken mailarako epaitua izan denak, etsitzea dauka. Eskolak ez dio ikasle bakoitzari bere gaita sunaren neurria eman besterik egiten.

Beraz, irakaskintzak gizonen arteko ezberdintasunak murriztu beharrean finkatu egiten ditu. Baina eman dezagun, lehen mailako irakaskintzaren frogagau, ikasle hainitzek gaindi ahal izan duela. Gorago johan, ordun eta zorrotzago aukeratzeko erabiltzen diren azterketak. Edozein nazioetako irakaskintzaren estadistikak irakur baditzagu garbi aski hontaz gara jabetuko: lehen maila batetan oso ikasle asko dago. Gora dohazen neurrian gutituz dohaz eta azken mailalara helduko direnak arras guti izanen dira.



Irakaskintza eraketaren gain-gainean, aberatsen semeek, bestez gain ikusteak ez du nehor harrituko. Ikasle gehienek, bere gurasoek duten sozial-mailaren arabera beharago nahiz gorago heltzen direla ikusiko dugu.

Jakintza eman nahi duen eskola honek, jendea, batez ere, irabazpide segur diren bizibideetako prestatu egiten du. Aukera zorrotz bat egin ondoren, talde txiki bat lehen mailako industriaren zuzendaritzara jasoko du eta jenderik gehiena denbora luzea eta neke gogorak eman ondoren eliminatu egiten du. Egun, lehen baino askoz jende gehiago dabil eskoletan. Lehen baino aukera gehiago dago. Eta honak eskolaren bidez, langileen egoera hobetuz dohan itxura eman dezake. Goi mailara heltzen ez dena, erdi mailara bederen iritxiko da eta lehen hau ere ez zina zen. Egun, sortu diren erdi mailako zenbait ofizio nahiz karrera, oraindano ez ezagunak genituen.

Produkzioak lehen zituen beharrak egungoaz alderatu dituen zenbait soziologikariko emandako azalpena hau da: irakaskintzaren eraketa toki-

an tokiko produkzioaren eskakizunei erantzun beharrez, aldatzen da. Egungo gizarte honen prinzipiorik nagusienetako bat, eskoletan ere garaile gertatu da: ahalik azkarren ahalik gehien irakatsi behar dela.

\*ξ\*ξ\*ξ\*

Hemendik dator, hain zuzen, programa-zabalkundea, indar handien xahutzea eta emandako nekeak hain handi izanik ere, ekarri ttipiak ateratzea. Honetatik gero ere, bide erdian geratu beharko duten etsipena. Eta sistema honen iritzi-tara makurtzen ez denak ez du aurrera jotzerik izanen.

Eskolak neska nahiz mutil baten giza-heldutasuna hark dakien matematikaren arabera ematen irakatsi daukunetik denok gara matematika ikasten hasiak. Hizkuntzaz poliki jabeturik den ikaslea eta gauzak buruz jasotzeko gai dena, balio handiko jotzen da. Ongi mintzatzen da eta gainera asko da kii zer gehiago eska dakiokegu pertsona bati?

ξξξξξξξξξξ

Edozein langile familietan era honetako "heziketarik" ez dela eman ahal, agirian da. Heziketa molde hau burjes familietan, edozein langile familietan baino errazago da ematea eta ondorioz, burjesen semeak, ia beti, besteen gaindik aukeratzea, ez da harritzeko.

Halaz guztiz ere, zenbait langile-semek muga hau indarraren indarrez hautsi eta goi mailako irakaskintzara hel badadi, ez du sistema ahul ahal izango. Alderantziz, elemento baliotsuenak, jatorrizko klasearen interesak bazter utzi eta goreneko klasearen interesak alde batera igarotzen bakoitzean, sistema indartu egiten du. Eraketan zegokion mailara iritxi bezain laster bertan integratu da, sistimari tinkotasuna emanik.



Eskola erakunde hau helburu bikain bati eran tzun nahirik sortu zen eta helburu hau zapuzturik du egun. Jakin-minari utilitatea nagusitu zaio eta eskolan eman uste den demokrazia konformismo hutse ra lerratuko da. Eskola XIX garren mendean guztien itxaropena izan zen. Aurrerapenaren bidea, berdinta sunaren nahiz askatasunaren eskola jotzen zen. Eskola bat zabal zazue eta presondegi bat hertsiko duzue, zion V. Hugo-k. Egungo eskola helburu haieta tik oso urrun denik ezin uka; gure egunetako eskolaren helburuak bitara bil ditzakegu:

- produkzioa GEHI ahal ukanen duten ikasle trebeak gaitu.
- klase banaketari IRAUN-ERAZI.

\*\*\*\*\*

II) ESKOLAN eman ohi den heziketaren mamia e re ez da neutrala, ikuspegi bat sortzera zuzendua baizik. Esaterako ez da adimena gai ahal zentzu kritikoa moldatzen ez bada. Eta ez dago zentzu kri tikoa sortzerik historiko gertakizunak aztertu e zik. Hauetarik kanpo ibiltzea errealitateari uko e gitea da. Eta ematen den historia honek gertakizu nen ikuspegi bat ala bestea ematea aukeratzen du.

Hau nola gertatzen den azaltzeko hiru gerta kizun, gure artean aski hedatuak, aztertzen saiatuko naiz. Gertakizun hauen "bi ikuspegiak" egun ere bi zi-bizirik ditugula ikusiko dugu. Eta hitz egitera koan bataren nahiz bestearen eragina nabaritzen da. Lehenik kanpoko ikuspegia emanen dut. Gero barrene koa. Ohar kanpoko ikuspegiak, ez duela berez kanpo tar batek emandako ikuspegia adierazi nahi. Barrene ko edonor ere kanpoko ikuspegiz mintza bait dai teke. Eta alderantziz.

§§§§§§§

-BATASUNA-

Gure herriak badu, noski, bere historia eta bere batasun arazoa. Ikuspegi bat kanpotik barrenerat begira badezagu, bestea arras ezberdina barrendik kanporat so jar bagaitez jasoko dugu. Kanpotik espainiar estatuko historiagile batek begira dezanean, gure herriaren historia, BATASUNAREN zerbitzuan jarriko du. Gauza bat osotzeko pieza bat besterik ez da harentzat izanen. Beti dauku batasuna harmatzat hartuko eta hau erdiesteko eginda ko burrukak oro gorai patuko dauzkigu. Berebat gudu hauetan parte hartu zutenak dira, herri baten handitasuna sortu zutenak, obra bat burutu zutenak, bakea eta ugaritasuna nazioari eskaini ziotenak. Batasuna sendo dezanean, berezitasunak ditu kontuan hartuko. Baina beti ere, berezitasun hauek nazio baten edertasuna eta aberastasuna kausatzen dutela esanaz.




BATASUNAREN balore mugagabe hau guztien gaitetik jartzen denetik, batasun honi eskainiko zaizkion berezitasunak deus guti balio dute. Herriak eta kulturak batasun honetara bil ez balitez, indarrez baliatzea zilegi da. Historiagile hauek diotenez, herri-nazio baten egiazko handitasunari hasera eman zaio. Eta nazioaren aurrerapena, batasunak irrimo iraunen duen neurrian seguraturik geratuko delakoan, batasun honen etsai azaltzen direnak, nazioaren etsai dira. Batasun honen araudietara bere burua makur nahi ez lezanak du, hain zuzen, aurrerapena, elkartasuna eta bakea arriskutan jartzen. Gogoz nahiz gogoz kontra, lehen bait lehen, batasunari bilidu behar da.

Gainera batasun prozesu hau ez da guztiz amaitua ikusten. Alor guztietan lor ez dadin artean beti izanen da eginkizun. Ekonomiko alorrean indar guztiak, batasunari begira jar ditzagunean, orduan bai herriaren aurrerapena bultzatuko dugula. Kultural mailan, berebat, batasuna osakizun da eta

zinez, batasunaren aldeko denak, kultura herrikoiak oztopo besterik ez direla ikusiko du. Hobe gure berezitasunak ahanztu eta batasunerat bideak urratzen saiatu. Gizartearen historia bide honetan barnaia abiatu da eta honez gero, ez da atzera egiterik. Europa mailan batasun baten bila gabiltzenez an zertarako hainbesteko garrantzia gure berezitasunei eman? Ez ahal da gizonok biltzen eta kidetzen gaituena berezi eta urrundu egiten gaituena baino askoz ere garrantzitsuago?

Barrendik kanporat so egin dezanak oso ikuspegi ezberdinez du bere herriaren historia ikusiko. Herria ez bait zen bere gogoz batasunera bildu, hona tara bortxatua izan zen. Geroz, ba daki, bere herriaren historiari ez zela errespetatu ito baino. Herri bati burua makur erazi zioten, historian parte hartzea debekatu egin nahi izan zioten. Eta egun europarat begira dezanak, herri txikien iratzartzea han hemenka suma dezake. Areago, herri txikien hitz ateratze hau, batasunaren egarria nehoiz baino handiago denean gertatzen dela, ikus dezake. Egun du hanitz herri bere historiaren jabetza eskatu. Egun du herri hanitzek bere nortasunaren berezitasuna idoro.



Lehen esandako batasun biderik ez dute herri hauek onartu, heriotzaruntz, bait zeramazkiken. Batasun honi irauan erazteko, gero-eta indar handiagoak enplegatatu behar direla ikusita, haserako barne-harrak jota deseginen ez ote den pentsatzeko garaia dugu. Baina jo dezagun aurrera.

Batasunari deihadar egitea modan dago. Batasunaren oihartzunak eragina handia duelako seguras ki. Nola kanpoko ikuspegian hala barrenekoan ere batasuna maiz aski aitzekitzat hartzen delarik, sasi-batasunek, hau da, haizean finkatutakoek, nondik

datozen eta zertara eramanen gaituzten ikusten aha legindu behar dugu. Lehen eta orain ikusi ditugu batasun honen deihadarrari erantzun nahirik herri osoak, etsai atzerritarren aurka biltzen eta altxatzen. Batasuna izan da gudu kolonialen harmarik zorrutzena. Eta egun diren guduak ere, hasi munduaren punta batetik eta besteraino batasuna zaindu nahirik egiten ari direla esan daiteke. Pentsaera berdina duten jendearen arteko batasuna. Mundu librea, mundu lotuari egiten ari zaion gudu esateraino heldu dira. Honela dira behin eta berriz, batasuna



zaindu asmoz, herri baten osotasuna zatikatzera ausartu.

Bai alde batekoak bai bestekoak ere nahi dute herria salbatu hor tarako pertsonak garbitu eta herria itoko badute ere. Hemen nazio baten batasunari eskainitako sakrifizioa, herri baten ezabatzea izan den bezala, han munduko batasunari eskainitako oparia nazio baten desegitea izan da. Hau, batasuna balore abstrakto bat bilakatzen den bakoitzean gertatzen da.

Batasunaren aitzekia herri baten mugaz barrerendik ere erabil daiteke, herri hau ttipi eta indarge denean batipat. Baina herri orok ttipi nahiz handi ba du bere klase eraketa eta herri hau aldeztu ustez lanari ekiten diogunean, alderdi baten alabestearen interesak aldezten ditugu. Beraz, norekin elkartu behar dugun eta zein helbururi atxiki nahi dugun, ahal dugula, ikasi behar dugu.


Historiaren erakaspenak gogoan hartu behar baditugu zera nabarituko dugu: batasunaren aldeztzaille amorratu agertu direnek, aitzeki hontaz baliatuz, herria bere esanetara jartzetik erdietsi ez dutenean, kanpotarrekin elkartzera jo dutela. Honela agertu da ez egiazko batasunik zutela aldezten beren interesak baizik.

\*\*\*\*\*

Ez da gure artean batasunaren aurkakorik se-  
guraski. Batasun hau kultural nahiz sozial mailan  
egin asmoz gabiltz denok. Batasun honi eskaintzen  
dizkiogu gure neke lan eta kritikak ere.

Gure artean ere batasun hitza aitzeki gerta ez da-  
din, batetik sasi-batasunak salatu beharrean gara, e-  
ta hau eginaz bat egiazko batasunerat bideak urra-  
tzen saiatu behar dugu.


Gure artean aski hedatua den pentsaera baten  
agerpide, era honetako esakuntzat ditugu: guti izanik,  
behar dugu bildu. Etsaiek, gu mendera ahal izateko  
nahi dute bai gure artean eztabaida eta burruka sor-  
tu. Oharkabean, etsai hauetarik batzuek, etxe barne-  
an sartuak ditugu. Beraz, aurrerantzean ere sar ez  
dakizkigun erne egon behar dugu, eta dagoneko barre-  
nean ditugunei ataka guztiak hertsu behar dizkiegu.  
Bil ez bagaitez ez dugu deus egiterik.



Non dira ordea etsaiak, eta nor da noren e-  
tsai? Eta euskaldun bat gutarren nahiz gure etsaien  
pilora botatzeko zer azterbide erabiltzen dugu? Gu  
etsai jotzen ditugunak erabiltzen dituzten kriteri-  
o berberak ez ote ditugu guk ere erabiltzen? Azken  
aldi honetan erabiltzen den hizkera batek galdera  
hauk sortzen ditu. Beraz, ez dira galdera alferrika-  
koak ene ustez, eta beti ere, gure egoera abiabide  
dugula, aztergai eta aztergarri.

Nola kanpoan hala barrenean ba dira batasun-  
naren hizlari trebeak. Batasunari deihadar egiteke  
ia ez dautzue elkarrizketarik eginen. Hauek ditugu,  
hain zuzen, etsaiak han hemenka, berek aldeztu du-  
ten batasunaren etsaiak salatzen hasi zaizkigunak.  
Hauek ditugu herri baten batasuna, erligioaren kon-  
zepto abstrakto batetan, ez Kristoren bizitza kon-  
kretuan, finkatu nahi luketenak. Jende honek bata-  
sun behe-maila batetan egiteko kemenik gabe, abs -

trakto den zerbaitetara, bere interesak ukitzen ez dituen alorrera nahi du batasunaren aldeko kanpaina eramán. Jende honek batasuna, herri konzepto mugagabe batetan oinarritu nahi du, honetarako herri konkretu honen pertsona batzuk baztertu eta eliminatuko baditu ere. Hauk ditugu, norbait berek nahi duten batasunera bil ez dadinean, indarrez baztertu ko daukutenak.



Baina lehen esana egia gertatzen da hemen ere. Nola herri nortasuna muga dezanak, egiazko nazio batasunik ez du sor ahal, hala pertsona bakoitzaren askatasunari oztopoak jar dezaizkionak ez du egiazko herri nortasunik aldeztu. Honek batasunaren aitzekiz sasi-batasuna sortu nahi dauku. Honentzat batasuna, egiazko arazoetik ihesbide gertatzen da. Eta egoki ez zaion batasunaz, hitz egin bazenezaio, garaia ez dela oraindik heldu eta poliki ibili behar dugula, esanen dautzu.

Eta GURE ARTEKO batasunei buruz zertan gara?

Hizkuntzaren alorrean, pedagogiarenean eta gure sozial egoeran denok dugu era bateko nahiz besteko batasuna egiten. Hizkuntzaren eremuan pauso sendorik eman da azken aldi honetan. Hizkuntzaren batasunak herriak egiten omen du esanda lasai geratzen zen jendea, duela urte batzuk. Egun ikus dezakegunez ez dago hemen ere neutral izaterik. Ni eta zu ere herri izanik, ez dugu eginkizun hau, guri dagokigun heinean, besteen bizkar botatzerik. Pedagogiari buruz berdin esan dezakegu. Hizkuntzaren batasuna eta pedagogiarena Euskal Herriko gizartearen batasunaruntz abiatu behar ditugu.

Batasunaren aldeko izateak batasunaren aldeko froga zehatzak eskatzen dauzkigu. Batasun hau pertsona batzuen egoera konkretuan oinarritzen da eta pertsona hauek sortu nahi duten herri motan, ez airean. Batasuna egunero isilean bizi ditugun ez -

berdintasunaren esperientzia samina. Pertsona baten jatortasunaren neurria hark egingen duen lanak emanen duela bistan da. Baina pertsonabatzuei, lan hau besteen mailan egiteko posibilitatea kendu egiten zaie. Ezberdin gertatzen gara gurasoen artean, ezberdin haurren artean, ezberdin gure artean ere.

Gizarte honek irakatsi dauzkigun baloreetan oinarriturik gure arteko ezberdintasunak sortu eta kontserbatu egin ditugu. Gizarte honek aldeztan dituen baloreetara makurtu edo balore hauek gaitzetsi beharrean gara.

Baina nola lehenaren hala bigarrenaren frogarekin gure bizitzak emanen du. Edonork sortu nahi dituen balore berriak bizitzaz bakarrik frogatu ditzazke, ez bait dago egiazko balorerik bizitzan finkatu gabe. Herri berri bat sortu nahi dutenen eginbeharrak, herri honen oinarriak jartzeko da.

Herri berri baten batasuna aldeztan badugu bere oinarriak jartzeko guri dagokigu. Eta hara gaurko egoerak balore berri hauek finkatzen hasteko egokiera sortu;

Guk ere, ORAINDIK EZ DELA GARAIA HELDU esan ote dugu?

Gure ezberdintasunei eusteko elkartzen bagara, gizarte klasista baten aldeztzailei arrazoina emanen diegu, berriz ere. Eta hau irakatsi nahi dugun historia baino gehiago ere bada. Gu egunero egiten ari garen historia dugu hau. Egunero egiten ari garen herri-mota.

L. Xabier.

# ~~PEDAGOGIA ASKATZAILERA~~

Heziketa molde eta gisari deritzat "pedagogia"! Pedagogia neutrorik ez da. Pedagogia orok berarekin darama heziketa era bat edo bestea. Pedagogia ez da irakaskintzaren bide eta forma soil a, aitzitik, pedagogia konkretu baten bidez haurrak, bide batetik edo bestetik abiatzen dira. Pedagogia konkretu batek, gizarte molde berezi bat tankeratzen du; eta praktika sozial batera zuzentzen da. Beraz, pedagogia baten aukera gizarte molde baten aukera da.



Ikastoletako pedagogiaren arazoa, Euskal Herri guztiaren pedagogia arazoa da. Egun, Euskal Herriaren kontzientzia menperatua eta isilera behartua dakusagu; eta ikastoletarako asmatzen ari garen pedagogia berriak gogoan hartu beharrezkoa du egoera hau.

Areago, egoera honi atxikia izan behar du pedagogiari buruz egiten ari garen aukerak.

Haseran esana dut pedagogiari kontzientizazio bide eta heziketa molde deritzaidala. Baina kontzientizazio hori era batekoa edo bestekoa izan daiteke. Hain zuzen ere, egungo Euskal Herrian nagusi den pedagogia edo heziketa bidea ez da ez euskalduna eta ez herrikoia; beraz, kontzientizazio honi "des-euskaldun" deritzat. Pedagogia nagusi eta dominant honek des-heziketa batetik abiatzen ditu euskal haurrak. Pedagogia dominant honek, egungo egoera aldrebes honen jarraipen izateko gaitasuna eskuratzen die geure haurrei.

Klase dominant eta boteretsuak "jakintza ofi-



ziala" irakasten du. Unibersitateak, instituoak eta beste heziketa mailako egiturak bere arabera taxutuak ditu klase dominant honek. Ekonomia alorrean beren produkzio moldeak nagusitzen diren bezala, heziketa alorrean ere beren heziketa molde eta pedagogia teknikak nagusitzen dira. Beraz, lehen ekuazio hau ifini daiteke:

*Produktzio moldeak = Heziketa moldeak*

*Hots, nolako ekonomi-egitura, halako heziketa-moldeak.*

"Stablishment" orok bere heziketa moldeak ditu, bere "statu quo"-ren jarraipen eta euskarri. Euskal Herriko stablishment (legezko egitura) nagusiak pedagogia deseuskaldunean aurkitzen du bere sostengurik tinkoena. Eta beraz, ikastolen ekitea zera: "legezko" pedagogiari, pedagogia askatzaile eta marjinal bat oposatzea. Eta oposaturik bestea gailendu. (Haipagarri jotzen dut, aldizkari beronetan agerturiko artikuloa "Haurra eta ingurua". Azken alean agertu zen artikuloa honetan aditzerat ematen direnak, kontexto honetan ulertu beharrezkoak juzgatzeko ditut.)

Euskaldunok, bi pedagogia molde desberdinen aurrean gara: batetik eskola "ofizialetakoa", eta bestetik ikastoletan erabiltzen hasiak garen pedagogi gisa berria. Molde eta gisa desberdin bi hauek, funtsean, bi antropologia desberdinetan oinarritzen dira. Diferent eta guztiz oposatuak dira gizonaz dituzten ikuspegiak. Eta hain zuzen ere bi sistema sozio-politiko desberdinei atxikirik daude bi pedagogia molde hauek.

Pedagogia klasikoa edo oraino eskola gehienetan erabiltzen den heziketa moldearen jomuga, honetara zuzentzen da: haurren "heziketara", hots, haurra

mugatzera eta menperatzera. Pedagogia molde hau erabiltzen dutenen baitan haurra, moldatu beharrezko materia egoskor bat da. Ikasleak ba du zenbait indar irrazional eta ero, bide honetatik zuzendu eta "hesi" beharrezkorik. Ikaslea "kaiku" edo ontzi bete beharrezko bat da, "jakintza ofizial" eta jakin batez bete behar den zulo bat.

Pedagogia honek haurra pasibo eta arpide soil bezala ikuspegitzen du. Hitz batetan esateko, pedagogia hau "lotzaile" eta direktiboa da. Haurra kulturaren biktima bat da, sistema honetan.

Bestetik ordea, hasiak gara ikastoletan beste pedagogia molde bat erabiltzen. Eta pedagogia honen baitan, haurra zerbait osatua eta hezitua da, berez, Nortasunik ba du haurrak, eta irakaslearean ekitea zera da: nortasun hori agertu eta baliaraztea. Haurra "hiztun" da, ba du zer esanik. Ez du entzun bakarrik egiten aitzitik hitzegin ere, hitzegiten du. Haurrak ba du jakintza bat eta hain zuzen ere jakintza hori praktikoa du, errealitateari itsatsia, eta beraren gandik ernea.

Pedagogia molde honetan haurrak "egiten" duen jakintza kritikoa da. Errealitate berezi batean angaiatua eta errotua. Pedagogia molde honi deritzat "askatzailea". Eta askatzailea da kritikoa delakotz.

Bi pedagogia desberdin hauk bi praktika desberdinetara zuzentzen dute haurra:

Pedagogia lotzailea (direktiboa) = Menpetasunaren praktika.

Pedagogia askatzailea (ez-direktiboa) = Askatasunaren praktika.

Gure gizartean dominant den pedagogia, "lotzai lea" edo direktiboa da. Baina Ikastoletan nabari daiteke beste heziketa molde berri bat. Pedagogia askatzaile hau, oraindiko bere haseratan datza, mugimendu kultural berri baten oinarria da. Mugimendu kultural honen karakteristikarik aipagarriena, bere marjinal eta oposizional zentzunea da.

Ikastoletan hezitako haurrak, kritikoak behar dute izan, berez pentsatzen dakitenak; eta zenbait sistimari aurre emateko gai izan behar dute. Hau lortzeko bide bakarra zera da: askatasunaren praktika. Praktika kritiko psikologia mailean errotuko da lehenik, baina azken finean, eta zinezko heziketa askatua ba da, gizarte mailean loratuko dira bere fruituak. Eta hain zuzen ere fruitu hauk, ondorio politikoak izanen dira finean.



Idazlan honetan aditzerat eman ditudanak, agian, argia baino itzala gehiago dute; baina nolabait ere aurrerantzeko aleetan saiaturko natzaizuet hemen teorikoki esan dutanaren alderdi praktikoak agertzen. Eta halaber pedagogia askatzailearen zenbait urrats nagusi aditzerat ematen.

Luis Haranburu-Altuna.

# IRAKURKETA <sup>19</sup> ETA SASI-IRAKURKETA

Oraindik-orain, irakasle taldetxo bat, irakurketaz ari ginela diskusio bat sortu zen.

Ideiak era argi eta ordenatuan agertzeko erraztasun gutiagatik, eztabaida hartan ene pentsamendua nahiko ulergaitza egin zen; horregatik idatziz azaltzea pentsatu dut, modu honek hitz nehurtuagoak eskatzen duenez eta horretarako behar den hainbat denbora lasai enplegatu ditekeelarik, hobekiago adieraztea lortuko dudalakoan.

Irakurtzea ez da dezifratze huts bat noski, honetan denok bat ginela esan beharrik ez dago; niretzat ordea, ez da aski hitz idatzia ulertzea irakurtzen dakigula esateko.

Irakurketa kultur-tresna bat, hots, askatzailea izatera heltzen denean bakarrik da benetakoa. Kultur-tresna bat, hau da, besteak pentsatzen, ikusten, sentitzen dutenaz jabetzeko honela, gu geurok pentsatzen, ikusten, sentitzen dugunarekin konparatuaz, gure pentsamendua irekitzen, eta zuhurtzen joan dadin, ingurua ulertzen joan gaitezen, errealitatea ezagutzen. Ordurarte tresna alienatzaile bat da, beraren bidez pertsona hobeto maneiatzea, zapaltzea guztiz erraza bait da.



Benetan irakurtzen dakienak, irakurtzen ari denaren aurrean jarrera aktiboa du, kritikoa. Kritiko esatean zera adierazi nahi dut irakurtzen denaren kontenidoa norberaren esperientziekin, dakienarekin konfrontatuaz onartu, ukatu, zalantzan ipini, ala postura hartzeko oinarririk ez duenaren bertzean gelditzea.

Sasi-irakurleak berriz, jarrera pasiboa du hitz idatziaren aurrean, ez du sentidu kritikorik dena o



sorik irentsitzen du, idatziaren muinera ez da barneratzen. Ikusten duena zeharo aldrebestua aurkezten bazaie ere ez ditu bi bersioak lotzen eta idatzirik dagoena onartuko du.


Benetako irakurketak beste kondizio bat ere eskatzen du: objetibotasuna, kritikarako idatzirik dagoenaz baliatzea, alegia, eta ez norberak aurkitu nahi lukeenaz, aurre-iritzirik gabe.

Ikastolak kultur-tresna den irakurketaren oinarri sakonak erein behar ditu haurraren hau garbia dago, gai honetan horrek izan behar du bere preokupazio nagusia, teknika irakasketa honi loturik doa; teknika irakasketa, alderontziz, ez doa derri gorrez aipaturiko irakurketa jatorrari lotua, geulekuko.



E. Senosiain.





Gure azken aldizkarian, kanpainari buruzko zenbait ideia adierazi besterik ez genuen egin. Gaurkoan berriz, ideia hauekin egiten ari den lana, edo-eta ideia hauek izan duten harrera gomentatu besterik ez dugu eginen.

Lehenik zera, alegia, lan hau gurasoekin batera egiteko zerbait denez gero, hauekin ditugun harremanak ikusten hasiak gara, eta, gure harreman hauen ondorio bezala, gurasoekiko mailan ezer gutti egiten dela dirudi. Noizean behin: erlijio, psikologia, edo beste hitzaldiren bat eman ohi da. Urtean behin edo bitan, ikastolako metodoari buruz, zertxo-bait azaldu ere bai. Baina hau aski ez dela ikusi nahirik, urrats berri batzuk ematen hasi nahi da. Esate baterako, Ikastola bakoitzeko haurren gurasoekin irakasleak harreman herstuak dituelarik lan eginaz.

Honetarako ordea, irakasle guztiak baturik egotea eta lana elkarrekin prestatzea da lehenen lortu behar dena. Bestalde, gela bakoitzean dagoen irakaslea bere lanaz bakarrik arduratzeak, gure heziketa bidearen aurrera-bidean traba sortzea besterik ez luke eginen. Beraz, adin edo maila bakoitzeko hurrekin dagoen irakasleak egiten duen lana zehatz-mehatz aztertuturik maila guztietakoak behar dute jakin.

Honen ondorioa besterik ez litza ke, irakasle artean elaboratutako hori bera gurasoekin lantzen jokatzea. Gure lana era honetan finkatuz, guraso eta irakasle arteko konfiantza eta esijentzia sortzeko izan daiteke.

Badirudi "errege kanpainari" buruz hitzegitean, zenbait gauza nahasten ari ote nai


zen edo, baina nahiz bata ala bestea oso loturik ikusten bait ditut.

Honelako lan bat aurrera eramateko, lehenik irakasleak behar du jabetu, eta neurri batean, ekintza honi beldur diogula dirudi eta laster aurkitzen ditugu eragozpen edo aitzaki batzuk: une honetan, gurasoek ez ditzakete arrazoin hau konprenitua; haurrak fantasia denboran bizi direla eta egia ez zaie esan behar; herri guztian, opariak errege egunez jartzen dira, eta, ikastolan Eguberritan jarriaz, ez dugu saltsarik sortu nahi, orain Ikastola oso ongi ikusia bait da. Gainera, gurasoak ez dira honelako bilkureta arduratu ere egiten; beti berdina etortzen dira.

Honelako eta beste zenbait arrazoin gure buruaren xurigarri besterik ez dira gertatzen. Edozein arazo dela ere, guk aztertzen eta sakontzen dugun heinean gurasoak jabetzen eta jartzen johanen dira. Baina, noizik behin deitu diegula eta ez direla guztiak etortzen esatearekin ezin lasai geldi, esan bezala, lana ongi aztertuz gero, nahi duguna lortzeko gureak eta bi jarririk ariko ginate.

Esanak-esan, kanpainari buruz egin nahi den lana prestatzen laguntzeko gertu gaude la adierazi nahi dautzuegu. Gurasoentzat ateratzen ari garen orriak laster eskuratuko ditugu eta ahalik azkarren zabaltzen saiatuko gara.

HAURRIDE.



# IGANDE <sup>23</sup> ETA JAI-EGUN

Bi jai igaran ondotik, ikastolara etorri gara (Azaroan, alegia).

- Kaxo, egunon andereño, esan daut Imanolek.
- Baita, zuri ere. Ongi igaro ahal dituk jaiak, Imanol?
- Aizu, andereño, jaia bat bakarra, bestea igandea zen.

Eta bat batetan egundoko eztabaida sortu da, jaia ala igandea dela eta ez dela iriziti bitan banatzen direlarik.


Une hartan haxe bururatu zitzaidan: haur hauek, berek aurkitu beharko dute, bada, erantzun xuxena, ez diet nik hotz-hotzean emango. Nik esplikaziotxo a ematen badiet, ez bait dira deus ere jabetuko; gehienei, behintzat, bost axola.

Lau-bost urte ditutenez geroz jotzen ditugu, bada, eginhalak asteak zazpi egun dituela (astelehena, asteartea...) buruz ongi ikas dezaten; eta lau astek osatzen duela hilabetea, etab. Baina...

Nik uste, denboraren konzeptoa erraz egiten dugula helduok, eta askoz errazago nola neurtu eta erabili. Maiz askotan, ordea, haurrari abstrazio maila handiegia eskatzen diogu, berarentzat prolema delarik gaur astelehena da pentsatzea, eta laster ostera astelehena. Baita, esaterako, egun berean haur baten eta bestearen urte muga izan eta biak ez adin bereko izatea, eta gisa honetako mila kezka.

Lehen hasiera emandakoaren harira nator. Egutegia eskuetan dute. Azaroaren lehendabiziko e-





5	22	29
6	23	30
7	24	
8	25	
9	26	
0	27	
11	28	



= 5 =

asteleak

lau aste



=

asteakena

4

ostiralak

4



=

4

AZAROA

bigarren astea

laugarren astea

guna gorritz ikusi dute, baina astelehenean lerroan. I ragan den beste egun gorria ezin aurki. Laster o- hartu dira, bai, urriaren azken-eguna zela, eta nahiz gorritz pintatua igandea zela, igandeen lerrokoa.

Bereiztasun honetara heltzean, sartutako hila- bete honen klasifikazioa egitera abiatu ginen. Nahiz nik apur bat girotu, egia, berek aurkitu zuten eraketa hau.


- 1) Aste osoak - 4 aste } asteen ordena.
- 2) Bi egun (29), (30) 5-garren astearen hasiera.
- 3) Azaroko igandek ~~1/1~~ ~~1/4~~ ~~2/1~~ ~~2/8~~
- 4) asteguneko jaiak (1) (2/1)

(Oharra 2) astelen denak

astelak	5
astearte "	5
asteazken "	4
... ..	4


-4 asteako egunak  $7+7+7+7=4 \times 7$   
 -hilaren egunak  $4 \times 7 + 2 =$

\*\*\*\*\*




hainbat dire, nahiz-eta batak astelenak, besteak astearteak.

zenbakideek bi multzoak.



hainbat eta gehiago da.



Feli Etxeberria.

# 2.7 ELKARRIZKETA

Ez da oraino hilabete asko zuekin elkarrizketa bat izan nuela; haren laburpen bat besterik ez da izango oraingo lantxo hau.

Denok ikusten dugunez, gaur eguneko heziketa ez da xantxetako gauza, baina, hau benetan pozgarria da: gurasoak kezkatu ikusten ditugu, eta hori bizirik gauden seinale eta berritze baten itxaropena da.

Alabaina, inork ez dezala uste izan korapilo guztiak egun batetan askatu ahal izango ditugunik, arazoa ez baita hain soila. Hau dela-eta, ez uste izan nere hitz hauek hauziaren erabaki bat izan nahi dutenik; jarraipen bat beharko duen haria besterik ez da. Eta besterik gabe goazen galde-erantzunetara.

1.- Haur asko dago euskaraz baino erdaraz errazago egiten duena. Horiei erdara galerazi eta euskaraz hezitzen saiatzea jatorra ahal da?

- Egia esan, korapilo honen aurrean ezin dezakegu sentimentu hutsez joka, ez bait genioke benetako argibiderik emango. Derrigorrezkoa da, bada, sustraietaraino joatea eta behar diren askabideak aurkitzea.

Lengoaia da ikastaro guztian ikasleak beharrezkoena izango duen lanabesa edo tresna; beraz, ikastola batetan dabilenarentzat euskara. Hain zuzen, ikastaroan gertatzen den jakintza har-eman oro lengoaiaren bidez eta berari eskerrak gertatzen da; bera gabe ezinezkoa litzake har-eman hori. Bestalde, lengoaiak eta adimenak duten korrelatibitatea handienetakoa da; hain zuzen, hitzak pentsamenduaren ageribide badira, gisa berean lengoaia domeinatzen dohan neurrian adimena ere desarroilatzen joango da.


Hau dela-eta, ikastolako xedean, lengoaiaren ihardunaldiak lehenengo maila batetan egon behar du

te; euskara domeinatuaz joango da adimena jazten eta hau jazten dohan heinean, joango da euskaraz jabetzen

Hau horrela delarik, gaztelania euskara bai no hobeto domeinatzen duen haurrak gure ikastoletan zenbait oztopo aurkituko duenik ezin dezakegu uka, baino ez atzera eragiteko heinekoak hala ere, eta argibidea gure artean dugu; izan ere, nork ez ditu e zagutzen, hamar urte bitartean euskara besterik ez ja kin eta gero goi mailako ikasketak egitera heldu diren gizon asko eta asko? Beraz, oztopoak badira, baina garbi dago gäindi ezinak ez direla.

Hala ere, hau jakiteak ez gaitu lasaikeriara bultzatzen behar; aitzitik, ba dago zer-eginik, korapiloak hor jarraitzen bait du. Hain zuzen, haurraren ikasketak ez dira ikastolako atletik kanpora bukatzen; bizitza osoa hartzen dute.

Ikastolatik irten orduko bai kalean, bai telebistan, bai familian erdal giroa besterik ohartzen ez ba du, bere aurrerapidea heretua, mugatua geldituko da, eta ikastolara joan dadinean ere aldapa gora egingo za io euskara mintzatzea.



Hauxe da, beraz, gure zeregina: haurraren inguruan euskal giro bat sortzea. Memento honetan ezin gindezke e pelkerian geldi; bai familian, bai kalean, bai lantokietan, hau da, beti, euskaraz hitzegiten ba dugu, gauza bat erakutsiko diogu haurrari: alegia, guretzat euskara garrantzi handia duen zerbait dela. Eta ez pentsa hori hitze ginez lortu ditekunik, ez; biaz lortzen dena da.

Bestalde, ez dezagun ahaz pertsona ez dela a dimen hutsa. Heziketaren jarraibide bat hartzeko orduan, horretaz gainera bere sentierak, bere kondaira, bere ingurua eta abar kontuan hartu beharrekoak dira. Giza euskalduna herri konkretu baten parte da; hain zuzen, hainbat urtetan eta hainbeste etsaien aurka, bere nortasunari euste arren, bere hizkuntza gorde duen herri baten parte. Hau dela eta, nere


ustez, euskaldun haur baten heziketak beste baldintza askoren artean hau ere ba du: euskalduna izatea.

2.- Zer garrantzia ematen diozu haurrak irakurtzen, matematikako operazioak egiten eta abar jakiteari ala ez jakiteari 5-6-7 urtetan?

- Handia noski, eta erantzun egoki bat emateko psikologiak ematen dauzkigun datoak kontuan behar ditugu. Honek dionez, adimenak ba du eboluzio bat, hedadura bat bere ahalmenean. Hedadura hori errespetatuaz laguntza egokia ematen ba diogu aurreratzeko lagunduko diogu; baino pisu handiegia jartzen ba diogu alferrikakoa eta kaltegarri izan ditekete.

Honelako zerbait gerta liteke irakurketaren irakaskintzarekin: zenbat-eta lehenago hasi eta hobe zela uste izan dugu askotan. baina psikologiak besterik dio: alegia, 5 1/2-6 urteak direla egokienak ikasketak hori hasteko.

Beste horrenbeste esan daitekete matematikari buruz. Gu, bapatean, hasi ohi ginen operazioak ikasten, baina egokiagoa da beste bide batzuk jarraitzea, batuketa, kenduketa eta gainerako operazioak behar den garairako utziaz.



Bestalde, gure garaiko pentsamoldearentzat, besterik ikasi behar ez bazen ere, matematika ikasi beharrezkoa zen. Gaur egun ezin dezakegu hori onar. Are gehiago, pertsonaren beste alderdi batzuek lantzearen beharra ikusten da eta gure artean oraino berriak diren bi eremu sortu dira: plastika eta dinamika.

3.- Haurrak ez dira zigortzen jeneralki behintzat. Ez ahal dute arrisku bat gauzak ez ikasteko?

- Gutako gehienontzat zaila egiten da jokabide hau behar bezala konprenitzea, bestera ohituak bait gaude. Reflesio sakon baten beharrean gaude baina gaurkoz, ukitu besterik ez dugu egingo.

Gizona libertatean bizitzeko egina dago; hau da, bere nortasunaren eraginaz hautapenak eginik bizitzaren zehar joateko. Beraz, horretarako hezi behar dugu gure ikastoletan.

Baino, zein da libre izaten erakutsiko dion bidea? Indarraren indarrez egin behar duena egin eraztea? Gaur egun nekez aurki genezake bide hau onartuko duen pedagogorik. Modu horretan, hain zuzen, beti kanpotiar bultzada baten eraginaz ariko litzaiteke eta libre izatera behin ere ez da helduko. Kanpoko eragin bat gainean ez duenean ez du jakingo nondik jo; bere gizatasuna erdi bide batetik ez da pasako.

Beste bidea, aldiz, libertatearen esijentzietatik doha; hau da: haurrak egin behar duena kanpotik datorkion egin beharra bezala ez-baina bere nortasunaren eraginez egin dezan; bere nortasunaren desarroilora doha zuzenki. Hori lortzen den egunean gizona heldurik dagoela esan daiteke. Zigorak heziketa honetan lekurik ez dezake izan, noski.

Jokabide honek arrisku zenbait ba du noski, baino irakasle onaldetik datozkionak dira handienak; bestenaz heziketa izan bait gara. Hala eta guztiz ere, bide horretatik saiatu eta jo behar dugulakoan nago; hori baita benetakoa.

4.- Gurasoak zer eskatu eta zer laguntza eman dezaioke irakasleari?

- Gure ikastolek beren irakasmoldea garbi jarri behar lukete guraso guztien aurrean eta hauek berori konprenitzen saiatu beharko dute; bestenaz beti berdin ibiliko gara: elkarren arteko desconfiantza sortuko duten esamesak benetako aurrerapena e-

gitea eragotziko daukute. Gure artean kezka bat sortzen den guztian elkarrizketara jotzea litzake beharrezko eta onena.

Bestetik ez. Ikusten duzutenez, gaia luzea eta aberatsa da, baino ukittu batzuk bestetik ez dizkio gu eman. Azterketa sakonago baterako gai balitz p<sup>o</sup>zik nintzake.

E. Zaldibia.





# ANTZERAKIAK INASTOLAN

18 haur ditut: 12 zarpikoak, 5 zortzikoak eta bat bederatzikoa. 7 mutiko eta 11 neskatila.

Azken aldiko bost-sei astetan, astero astero, antzerkiak egitera destinatzen dut arratsalde bat.

Esperientzia polita izan da. Antzerkia egin go dugula erabakitzen dugunean, taldeak berez formatzten dira: mutikoak mutikoekin eta neskek neskeekin (batzutan zaila izaten da denentzat zeregina aurkitzea eta neska batzuk egiteke gelditzen dira). Hala ere denak zertxobait egin dezaten saiatzen naiz.

Taldeak egiten direnean antzerkia pentsatzen hasten dira. Batzuetan aurretik pentsatua izaten dute. Edozein gai: gehienetan, eguneko edo inpresionatu dituzten zerbait.




Nire lehenengo eginkizuna, berak asmaturiko antzerkia idaztea izaten da (forma konkretoa emateak garrantzi handia du; berek, idazten denpora asko beharko lukete, eta azkar egiteak animatu egiten ditu.) Batzuetan komeni izaten da zertxobait laguntzea, baina oso osorik berek asmatu riko bada, hobe: berek esandakoa errazago jasoten dute.

Entseioak bakarrik egitea gustatzen zaie: gu retakorik gehiegi sartu gabe. Talde bakoitzak bere antzerkia asmatzen du, eta toki desberdinetan jartzen ditut, nahasketarik sor ez dadin. Ni alde batetik bestera ibiltzen naiz, zerbait lagundu edo entseio-tan seriotasun piska bat eskatuz.

Laguntzen ez dut lan asko izaten. Hasiara dirudit garrantzitsuena: forma eman eta martxan jarri. Ondo hasten denean gusto gehiago hartzen diote; hau kontuan hartzekoa da. Antzerkien kondizio moduan hauek jarriko nituzke: laburra (entseiatzeko den pora gutxi dagonez; konkretoa (ulertzeko erraza eta konplikazio gabea egiterakoan).

Antzerkiaren alde onak, beren arteko organizazioa eta bakoitzak bere eginkizunari lotzea ikusten ditut. Zer esanik ez, desberdintasun handiak daudela batetik bestera, eta pertsonalitateak beren berenak menperatu egiten dituela besteak. Hala ere, bakoitzak bere ukitua ematen dio bere eginkizunari.



Kasu interesgarri bat aipatuko dut. Ene us-tez antzerkien influentzia du. Haur nerbioso eta pertsonalitate gabekoa da, nesken etsai amorratua eta mutikoekin bat egina. Ia beti entseiatzen zuen, baina neska eta beste haurren artean antzestu behar zenean baztertu egiten zen eta ez nuen lortu erdira ateratzea. Azkenekoan Pernandorena egin zuten (mozkortu eta txanpon bila dabilenean; aurretik ere egina zuten eta grazia handia egiten die). Mutiko horrek zuhaitzarena egin zuen. Entseioa egin ondoren orkestra bat formatu behar zutela-ta, inguruan zituzten tresna guztiekin lagunduta IKUSI MENDI ZALEAK entseiatu zuten geroko. Ez nuen sinestean: 60 haurren artean han ikusten dut pandero jotzen. Antzik ere ez zion ematen, baina gogotik jotzen zuen, eta lotsa asko gabe gainera.




Lehenago gain hau dateke antzerkiaren alde-rik onena. Beren hertsituratik irtetzen laguntzea

eta euskara hobetzeko probetxatzea.

Gure gelako antzerkiak ikustera 5 eta 6 urtekoak etortzen dira:60 bat haur denera. 5-koak protesta gogorrak egin dituzte, ikustera bakarrik joaten direlako beti. Hortik, antzerkiak egiteko gogoia egin zaie. Gainera, beste haur batzuen aurrean egiteak poza eta segurtasuna ematen die; eta pertsonaia-  
ren ezaugarri bat badute, askoz gehiago, (esaterako katagorriarena egiteko paperezko buztan handi bat). Jantziak izugarrizko ilusioa egiten die.

Arlo honetan esperientzia egin dutenekin har-  
emanetan jartzea nahi nuke. Aberasgarri izanen  
litzake denontzat.

Tomás Elorza.



# MATEMATIKA DELA-ETA

Aspaldi honetan hain zai gauden matematika materialaren atzerapenaren zergatia nahi dautzuet adierazi.

Dakigunez, ba da bai, aski denbora lan guztiak bukaturik teknikoei eman zitzaizkiela, eta gure ustez behintzat haien esku zen gelditu lan hau, baina, azken aldean presupuestoaren berria jakitean guztiok behar dugula biziki dantzatu ikusi ahal izan dugu ikusi ere. Alegia, lan hau aurrera atera tzezkerotan irakasle bakoitza behar du jabetu aurrere-aurre dugun arazoaz. Gutti batzuen eskuetan honelako lanak utzi eta beste jende multzo bat honetaz arduratzen ez denean deus ere ez dugula aurrera aterako esan nahi du. Beraz, hona ahalik eta azkarren jakin behar duguna:

- a) Gure Ikastoletan sei urte bitarteko zenbat haur ditugun.
- b) Zenbat irakasle konprometituko ginaken material hau hartzeko eta ikasle artean zabaltzen johateko.


Ados gara noski, ezin daitekeela jenderik konpromiso hartzerat bultza, zertaz konprometitzen den ez dakienean behintzat. Oraingoan matematikari buruz ari garelarik ere berdin gertatzen zaiku noski; alegia, jendeak material hau ongi ikusi eta ezagutu behar du eta honek lagunduko dauku edozein erabaki hartzen.

Honela bada, jakin zazute, Feli prest dagoela eskatzen zaion heinean bere lana azaltzen johateko. Beraz, guri dagokigu, premi hau estaltzeko zer-nolako bilerak eratu ahalik eta azkarren pentsatzea.

Zenbait herritan, bertako ikastolan dauden haur ttikien numeroa harturik dugu, baina oraindik gehienak falta dira. Beraz, ahalik eta azkarren eran tzun dezazuten eskatzen dautzuegu.

Dena dela, guztion esku gelditzen da lan hau atera ala ez. Guk azaltzen dugun interesak behar du aurrera bultza ala atzera bota.

Arantza.




# ~~OINATIKO ITSASONDOKO~~

Egun, uste dut, ikastola askotan hasiak direla beste herriren batekin har-emanetan. Nire haurrak Itsasondoko haurrekin dituzte har-eman hoik, aldizkari, idazti, hosto eta sasoineko igaliak truka tuaz.

Hala-eta guztiz ere, pentsatu genuen zerbait falta zutela har-eman hoik: haurrak elkar ezagutzea.

Pentsatu eta han joan ginen mikrobus bate-tan. Haurrak eskursio eran hartu zuten; nik ez nien hitz hori esan, hitz horrek denbora galtzea esan na hi duelako gurasoentzako.



Hango andereño Maiterekin plana eginik nuen eguna nola pasatu. Gutxi gora behera, honela zatitu genuen eguna:

GOIZA: gu heldu ginenean, berak normal ari ziren lanean: beste edozein egunetan bezala.

Gero bata bestearen presentazioa izan zen. Ondoren Itsasondokoek, berek eginiko lanak agertu zeuzkiguten. Hontan denbora asko igaro zen.

Oinatikoek gogo handiz jasotzen zuten dena. Bazkaria bakoitzak berea eramanean zuen eta ikastolan bazkaldu genuen.

ARRATSALDEA: Itsasondoko haur baten urte betetzea zela-eta goxokiak janaz eta abes-tuz eman genuen: abesti batzuk berriak ziren gure-tzat, eta beste batzuk haientzat.

Gero, Oinatiko haurrak pozez irrikatzen zeuden trena ikusteko (Oinati inguruan ez dago) eta geltokira joan ginen gainera. Bi direkziotan ikusteko aukera izan genuen.

Handik harbel-harrobi bat ikustera. Oso interesgarria izan zen.

Orain egiten ari diren bi etxe ere ikusten egon ginen (berri hau beren aldizkarian ematen zeukuten).

\*\*\*\*\*

oak: Ibilaldi hori dela-ta atera ditudan ondori-

-H	}	Besteen lana ikusten ikasi.
-Haurrak elkar ezagutu		Beste haur batzuen ardura izan.
		Euskara gehiago baloratu.

-Elkar hizketa egiteko gai asko sortu da.

-Fitxa ttiki batzuk atera nituen ibilaldia-ri loturik. Hontaz beste batetan idatzikodut.

-Euskal Herria ezagutzen joan.

Ibilaldi hauetarako zailtasuna, galestia dela: 150 pta. gosta zen haur bakoitzeko.

Hurrengoan, berak, itsasondoarrak dira honera etortzekoak.

Nireak gertu zeuden hurrengo goizean berriz joateko.

Asko gogoratzen dira hango gauzekin.

Euxebi andereñoa.

# LIBURUAK <sup>39</sup>

Izenpurua: "Lógica y juegos lógicos"

"Conjuntos, Números y Potencias"

"Exploración del espacio y práctica de la medida"

Egileak: Z.P. Dienes - E.W. Golding.

Argitaratzailea : TEIDE

"Matematikan lehen urratsak" da hiru liburuxka hau en izenpuru nagusia.

Oraingo matematika-k ongi eta ez hain ongi dakitenentzako eginak dira; irakasten ari direnentzako, hain zuzen. Gainera samur irakurtzeko ak dira; eta, ene ustez, ongarriena hau da: lehenengo mailako irakaskintzaren irakasleek matematikak biziki, ez abstrazio-hutsa bezala haurrei agertu nahi badizkiete, liburu hauetan jan bikaina aurki dezakete egunero. Azalpen eta irakaspen guztietan irakaslea zuzendari-gisa agertzen da soilik eta be netako lana haurren eskuetan eta barneko interesetan jartzen du, hau da: joku eta alegi batzuen bi tartez, eskolan izaten diren tresnen eta jostailuen bitartez, urteetan zehar aspergarria eta neketsua i zan den gaia, haurrei interesgarria irudituko zaie.

Liburu hauen oinarria eta jarrai pena "Método activo" delakoa da. Matematika-ko gai etan haurrari joku biziak asko pentsaraz eta ikus-arazten dizkio, eztabaida ugariak elkarren artean sortarazten eta azkenekoz argi-ta-garbi ulertarazi ko dizkio. Haur ber-berak, beraz, lortuko du.


Lehenengo liburuaren hitzaurrean aholku oso ederrak jartzen dauzkigu, irakasleoi, ira kasp<sup>en</sup> guzti hauk eguneroko lanean barrena ongi borobil ditzagun.



Gomendatzen dautzuet, bada, maisu-  
eta andereno, liburu ttiki hauen irakurketa, gauza  
guztiak praktikan haurren eta geure irakaskintza-  
ren onurako jar ditzazuten.

B. Madina.

Oharra: "matematikaren hastapenak" edo lehen-urra-  
tsak nahi bada, Feli Etxeberriak prestaturik  
inprentatzen ari da. Irakur zazu zenbaki hone  
tan berean "matematika dela-eta" zer gerta-  
tzen den. Guztiz baliotsu den materiala ge-  
nake eskuetan, baldin-eta interes apur bat  
azaltzen badugu irakasle denok eta bakoitzak.



# ~~EDIN~~ DAN<sup>41</sup>... ~~BOLERA~~

## 1) Ormaiztegi.-

Ikastola alorrean orain arte Goiherriko bailara osatzen zuen herri honek, agidenean, gorago aldegin dauku, bederen gurasoen aldetik. Legazpia, Zumarraga eta Urretxuarekin du batasuna egin. Ba zen aspaldidanik sokatira bat eta... andereñoen ganako, beste herri askotan bezelaxe, deskonfiantzarik.

Eta guztia erlijioa dela-eta sortu omen. Herriko bi apaizek guraso-batzordearen izenean die andereñoi esan: erlijioa irakatsiko da ikastolan ala, ateak zabalik dauzkatzue. Hori da, herri, egiazko erlijio garbiaren bidea;

Guztiaren gaineratik, ez dugu uste, halere, funtsean gaitza hemen dagoenik; beste zerbait dateke ikastola barnean darabilen esplikazio sakona. Aldizkari honen hariari jarrai diezaionak, konprenitzen ahal du denborarekin.

## 2) Berriz.-

Pulpitutik jaulki da hemen andereñoak ateo direlako akusazioa. Apaizarengana kontu-eskatzera johan direnean, ez dela herriko andereñoen gatik gisa horretan mintzo esanaz desenkusatu da. Beti da ona behar den kasuan eta behar den gisan aurpegi ematea, eta andereñoen kasuan berdin.

Ez dirudi handik honat ondorio handirik ukan duenik, baina aski da, ondorio txarrak errazago hedatzen direla gogoan edukitzea.

## 3) Gasteizko ikastolan gertaturiko en haria.=

Ikastaroaren hastapenetan, andereño guztiak egunero 5 eta erdietatik 6 terdietara biltzeko erabakia hartu zen, andereñoen beren artean.


Egia esateko, andereño-zuzendariaren baimenik gabe, baina baimenik behar zenik pentsatu ere gabe, eta i nolaz ere ez zuzendariaren kontra edo haren bizkar berak ere ezagutu duen bezala.

Egunak honela banatzea pentsatu zen:

2 egun: euskara ikasteko

2 egun: heziketa bilerak egiteko

Egun bat: metodo berriak eta ikasteko.



Hasera eman zitzaion plan horri. Euskara eta metodoak direla-eta, ez zen ezer gertatu. Bi heziketa-bilera egin ondoren, zera jakinerazi zitzaigun:

"Gipuzkoako eta Bizkaiko Ikastolak galdurik daude. Eta ez dugu nahi hemen berdin gerta dadin. Ba dakigu bilera horiek zer ondoren ekartzen duten. Heziketa beharrik ez dugu. Ikastolan ditugun haurren hezitzeko, aski hezirik gaude. Hemen, hiru gauza eman behar ditugu: euskara, erlijioa eta disziplina. Eta gainera, ez dugu nahi batere harremanik beste tokietako Ikastolekin. Beste Ikastoletatik ez dugu ezer ikastekorik"

Zeharo harriturik gelditu ginen. Izan ere, presentatu zen plana ezin zitekean arruntagoa izan. Heziketa lan horretarako presentatu zen gaia hau bait zen:

"- Pertsona. Orainarte gizonaz izan den ikusmolde biologikoa eta oraingo ikusmolde kulturala.



- Pertsona ez da jaiotzen, eginaz dohan zer bait da. Pertsonagintza eta pertsonaren baloreak zeintzuk diren.



- Pertsona eta bere ingurua: etnia, politika, kultura, familia, konsumoa eta abar.

- Inguru hori analizatu beharra, haurra non mogitzen den jakin dezagun.

- Ez dago inguru-zirkunstantzi neutralik: per-  
tsonagintzaren aldekoa ala kontrakoa izango da be-  
ti.

- Heziketaren helburua: haurra NOR bat izatera  
hel dadila, ZER baten mailan amildu gabe".

Ondoreneko egunetan juntakoen eta gurasoen ar-  
tean barra barra zabaldu zen Ikastolan marxismoa e-  
ta ateismoa sartu nahi direla. Gasteizko guraso ba-  
tzuk izan dira kalumnia hori zabaltzen hasi dire-  
nak. Behin eta berriz esan izan arren, azpijanez ari  
zirenak aurrez aurre hitzegitera ager zitezela, alfe-  
rrik izan da. Hala ere, akusatuen testigutza garbia  
ri baino azpijanez ari direnei kasu gehiago eginaz,  
juntako jendea ibilia da Gipuzkoan eta Bizkaian in-  
forme bila. Komeni izan zaien lekuetara jo dute e-  
ta, gauza harrigarria! (?), informe denak berdintsu-  
ak izan omen dira, beren susmoen konfirmagarri.

Urriaren 25-ean gurasoen Junta bildu zen, aste  
lehenero bezala. Bere postura azal zezala eskatu  
zitzaion OSARI. Hala egin zuen, esanaz:

"Erligioari buruz zera esango dautzuet. Udan  
gai honetaz hitzegin nuen Durangoko, Beasaingo eta  
Donostiako kursiloetan. Durangon Gasteizko lau an-  
dereño ere han izan ziren eta ez duzute haiei gal-  
de besterik.

Bestalde, artikulo luze bat gertatua dut aldiz-  
kari batera bidaltzeko, gai berari buruz eta kursi-  
loetan esan nuenaren laburpen gisa. Nahi baduzue ko-  
pia bat utz dezaizueket.

Hori aski ez bada, hitzaldi baten bidez, bi or-  
dutan edo, nire iritzia azaltzeko gertu nago. Baina  
ez bost minututan, jendeak hemen nahi duen bezala,  
prolema lehen baino ilunago geldituko bait litza-  
ke".

Juntako baten erantzuna: "esan daukuzun guzti

ak ez dauku ezertarako balio. Zuk fatxada bat presentazten daukuzu, baina nork daki barnetik zer pentsatzen duzun?

\*\*\*\*

Ondorenez: esan zuen guztia alferrik izan zen:

- a) Durangon izan diren andereñoek ez zien deus galdetu.
- b) Presentatu zien artikulua ez zuten irakurri nahi izan.
- d) Proposatutako hitzaldia ez zuten entzun nahi izan.

Beste akusazioei buruz, juntako batek esan ere esan zuen: "Egia da han eta hemen susmo asko jaso dugula. Baina egia da baita ere konkretoan ezer ez dugula egizta ahal izan. Eta egia da gure Ikastolan ez dela ezer gertatu".



Jokabide guzti hau, andereñoekin ezertarako kontatu gabe eraman dute. Etzaie ezertarako kontatatu. Andereñoen hitzak eta iritziak ez dute ezertxo balio izan. Haur besoetako, edo hobeto esan, enpresa bateko enpleada huts batzuk bezala tratatuak izan dira.

Andereñoek beren aldetik bilkura bat egin zuten eta hiru puntu hauekara heldu ziren:

- a) Problema hau ez da Ikastolaren barnean sortu, kanpotik baizik.
- b) Andereñoak ez dira Osak eraginak izan (puntu bi hauek andereño denak akort ziren).
- d) Botazio bat egin ondoren: 7 andereñok justiziaren kontrako ikusten zuten OSA Ikastolatik botatzea; 5 andereñok ez zuten botorik eman; batek ongi ikusten zuen.

Zuzendariak Juntari jakinarazten dio andereñoen bileran gertatua. Bost axola zaiola andereñoek pentsatzen dutena agertzen du Juntak. Eta berriz ere ongi agirian jartzen da andereñoak jostailu batzuk direla Juntaren eskutan.

Eta azkenik,

Inoiz aurpegirik eman nahi izan ez duten jaun batzuek zabalduko funtsik gabeko susmo hutsetan oinarriturik,

Moral tradizionalenaren eta Deretxoaren oinarria, hots, kontrakorik frogatzen ez den bitartean edozein pertsona errugabetzat hartu behar delako prinzipio hori zapalduz,

Ikastolaren eginkizun nagusia euskara ikastea, erlijioa ematea, nota onak ateratzea eta bide horretatik fama hartzea dela agerturik,

Benetako heziketa zertan datzan aztertu gabe eta aztertu nahi izan gabe,

Andereñoak ezertarako konsultatu gabe eta haien iritziak guztiz bazterturik,

Guraso gehienak batere informatu gabe,

Guraso gehienak zein iritzikoak diren jakin gabe,

Elekziorik gabe berez sorturiko eta, beraz, representazio gabeko Junta batek,

OSA Ikastolatik botatzea arabakitzen du.

Oharra: Bota dute Osa ikastolatik. Argiro dago jende instalatuak ezin duela onar bere haurrak zentzu kritiko batetan edo erresponsabilitatean hezitzerik: aski du ontzia betetzen den gisa haurrari burua gainezka betetz gero, hustelduriko gizarte molde honen zerbitzutan "morroi-neskame" leial" egitea.

4) Oinati.-

Eguberrietarako erakusketa edo esposizio kokor bat antolatu da. Marrazki eta eskulanekin osatuko da, tarteka-marteka heziketari edo ikasketari buruzko esaldi batzuk sartuaz.

Jostailu edo zenbait material ere, Haurridetik ekarririk, jarriko da salgai.

5) Ikastola-Hiztegia.-


Heldu zaiku azkenean hainbat amestu dugun gure hiztegia. Zer abegi eta arrakasta dadukan ikusteak, uste genuen baino ere premiatsuago zela adierazi dauku. Behintzat, orain, gure liburu, fitxa eta eskola lan guztietarako ba dugu oinarrizko hiztegi bat.

Bestalde, xukun atera ere da. Ez luke inork inprentaz ez dagoenik esango. Gai bakoitzean euskari buruz jakitun den zenbaiti bidali zaio, eta Euskaltzaindiari bereziki, ale bat, irizta eta maiea dezan, ea bigarren argitaldia behar den legez ematen dugun.

6) Bost liburuxka berri.-

Ikastola-liburutegia osatzeko prestatuak dira eta inprentatzen dihardute. Bost liburuxka gai bana ematen dutelarik. Hona gaiak:

- Laborantza
- Onddoak
- Olentzaro
- Erleak eta eztiak
- Ogia



Datozela lehen bai lehen! Lehendabiziko fruituak bait dira, ez dira noski guztiz eta osoki moldatauak izango, hiztegia ere ez da, baina ibiliaz ibiltzen ikasten omen da eta guk ere bai.

Horiek oro, esperientzia on bat izan liteke, eta ondorioz, Aste Sandurako argitara emateko direnak e satuago presta ere bai.

### 7) Irakurketa-hastapenaren ikastaldia.

"Lehen-irudi, lehen-hitzak" delako idatzi eta irakurtzeko metodoaz ongi baliatu eta erabiltzen ez ote dakigun iritziak bildu dira gu artean. Hori dela eta, kursillo bat muntatu da metodo hau erakusteko, larunbat-igandeak probetxaturik. Abenduaren 11-12. an, bada, Barcelonako "Rosa Sensat" irakasle-taldeko bat izanen dugu gure artean.

Deiak alde zuzenetik pasako zaizkio bakoitzari, eta bestenaz, arazo honetaz interesa duen ororentzat hona hemen albiristea, mugi dadin lehen bai lehen.

### 8) Goiherriko ikastaldia.-

Eguberrietaz baliaturik, ikastaldi bat antolatzen ari da bailara hau. Gaia: urteko lana edo lehen-hiru hilabetetan egin lana aztertzea; eta gizarte gaiari buruz zenbait puntu patxadan eta soseguz ikastea, aurrerat begira programa erreberritzeko.

**BERRIKETARI**

71-12-3



NON ZER

- Apurrak ... ..	1
- Aintzin-solasa ... ..	2
- Ikastola eta ideologia ... ..	3
- Pedagogia askatzailea ... ..	15
- Irakurketa eta sasi-irakurketa ... ..	19
- Errege kanpaina ... ..	21
- Igande eta jai-egun ... ..	23
- Elkarrizketa... ..	27
- Antzerkiak ikastolan... ..	32
- Matematika dela-eta ... ..	35
- Oinatitik Itsasondora.. ... ..	37
- Liburuak... ..	39
- Din dan...boheran.. ... ..	41

